

Baztan

Udal Boletina

3. zk

2013ko urtarrila

SAR HITZA	2
AURREKONTUAK	2-5
MURRIZKETAK	
OSASUN KONTSEILUA	5
LARRIALDIETAKO	6
ZERBITZU PRESENTZIALA	
LOIZU HILTEGIA	7
LIZARTZU BAZKALEKUA	7
ZABOR BILKETA	8-9
IRURITAKO	10
SAGUES ETXEAK	
ZERGEN BERRAZTERTZEA	11
ESPAINIAKO BANDERA	12
GILTXAURDI	12
KIROL INSTALAZIOAK	

SAR HITZA

Baztango Udal Gobernuaren asmoa hasieratik bere herritarrak informatuak izatea izan da. Horretan segitzeko asmoz urtea akitzearekin batera azkeneko hilabeteetan egindakoen berri agertu nahi du boletín honetan. Ustez garrantzitsuenak direnen berri eman nahi izan du, jakinda boletín bakarrean dena agertzea ezinezkoa dela. Informazioa osatu edo gehiago nahi duenarentzako udaletxean berean eskatzen ahalko du edo zuzenean webgunean kontsultatu:

www.baztangoudala.eu

BAZTANGO UDALAK 2013KO AURREKONTUEN LANKETA HASI DU

Aurrekontuak, udal planarekin batera, udal baten kudeaketarako dokumentu garrantzitsuenak dira.

Labur erranda aurrekontuetan zehazten da Udalak baztandarren izenean:

- Nondik eta zenbat diru jasoko duen.
- Zertan eta zenbat gastatuko duen.

Hori dela eta udalak ahalik eta herri-herri gehien iritzi, ekarpen... jasotzeko nahi ditu eta biltzen ari da.

luz herrietako Alkateen bitartez jasotzeko ziren herritarren lehentasunak, aurten prozesua zabalduz eta hasitako bidean aitzinet eginez, beren ekarpena eskatu zaie:

1. Herrietako alkateei, beren herriko batzarren bidez egin ditzaten herrian eta Baztanen ikusten dituzten beharren zerrenda.
2. Udal langileei.
3. Udalak koordinatzen dituen sektore ezberdinetako batzordeei.

Aurrekontuen lanketa modu honetan ondoko bultzatu eta lortu nahi du udalak:

- Baztango herritarren lehentasuneko arazoei erantzunen dien aurrekontuen osaketa.
- Baztango erabakietan herritarrak ikusle izatetik eragile aktiboak izatera pasatzea.

- Baztango kudeaketa gardena eta eraginkorra egitea.

Hasieran erran bezala udal baten dokumentu ekonomiko garrantzitsuenak dira aurrekontua eta pentsatzekoa den bezala sarrera eta gastuen zehaztea eta orekatzea, lehentasunak finkatzea... kontu korapilatsua suertatzen da. Krisi garai latz honetan Nafarroako Gobernuaren egoera eze-gonkorra eta abian dituen etengabeko murrizketek aurrekontu fidagarriak osatzeko tenorean arazo gehigarri bat da; izan kontutan tokiko inbertsioetako planeko obra batzuentzat bakarrik eman duela Nafarroako Gobernuak dirua, edo eskolak konpontzeko dirua azken momentuan erran digutela ez dutela beren parte ordainduko...

Udalak aurrekontuen osaketan ere baztandar guztien zerbitzura egoteko konpromisoa berresten du.



AURREKONTUAK eta MURRIZKETAK

2013. URTEKO BAZTANGO AURREKONTUAK ETA MURRIZKETAK

Baztango udalak 2013ko udal aurrekontuen lanketa hasi du, hortaz, hasteko tenorean beharrezkoa da Nafarroako Gobernuaren mozketak udal mailan izanzen dituzten ondorioak baztandar guztiek jakitea. Horregatik, Baztango udal gobernuak baztandar guztiakin bildutako datu hauek partekatu nahi ditu, betiere jakinik, Nafarroako Gobernuaren aurrikuspen faltarengatik eta Madrilgo Gobernuari buruzko menpekotasunarengatik, murrizketa berriak etengabe etortzen direla; eta, hori, udaleko lana antolatzeke tenorean bertze arazo gehigarria dela.

HEZKUNTZA

Nafarroako Gobernuak eskolen mantenimendurako laguntzak murriztu ditu, baita eskoletako obrak egiteko ere. Horrela, Azpilkuetako eta Arizkuneko eskoletako teiltuendako ez dute hitzartutako %65eko dirulaguntza eman. Horren ondorioz egoera makurrenean zein zegoen kontuan hartuta Azpilkuetakoa bakarrik egin ahal izan da eta haren kostua Baztango Udalak osoki bere gain hartu du.

GIZARTE ZERBITZUETAN

Inmigrazioa

Baztango Udalak esparru honetan lan egiteko hainbat ekintza planteatu zituen (tailerrak, aste hiperkulturala, ikastaroak etab.) eta hauek egiteko 38.000 euroko aurrekontua zuen proiektua aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuan. Abuztuaren 16an Nafarroako Gobernuak eskutitz bat bidali zuen, dirulaguntza hau desagertzen zela erranez, beraz, proiektuan bildutako ekintzak ezin izan dira egin.

Enplegu babestua

Enplegu Babestuko proiektuan %50eko murrizketa izan da. Honek suposatzen duena: 8 langile kontratatzetik 4 langile kontratatzera pasatu gara.

Azpilkuetako eskola >>

Gizarteratze errenta

Gizarteratze errenta, familiak bertzelako prestazioak agortu ditularik ematen den dirulaguntza da, oinarrizko beharrak asetzeko. Gaur egun, gizarte zerbitzuetatik eskaera bidaltzen denetik, familiak prestazioa kobratzen duen arte 5 hilabete pasatzen dira; horrek erran nahi du, familia, inongo diru sarrerarik gabe egoten dela hilabete guzti horietan. Hasiera batean 52 eskaera izan ziren, paperik gabe daudenak eta bi urte kobratzen aritu direnei kobratzea ukatzen zaienez, momentu honetan 20 lagun dira Baztanen gizarteratze errenta jasotzen dutenak.

Zainketa

Etxean zainketa lanetan aritzen direnendako zeuden dirulaguntzak ere murriztu dira kasu larrienenetan %66ra iritsiz.

Ezintasuna duten jendeendako laguntza teknikoa lortzeko, hau da, ohatze bereziak etab. laguntzak desagertu dira. Haurra sortzen deneko laguntzak eta 3. haurra izateagatik zeuden laguntzak ere desagertu dira.



Baztan

Udal Boletina

MURRIZKETAK

EUSKARA

2001ean 727.344,76 euroko diru laguntza eman zuen gobernua Euskara zerbitzua zuten udalen artean banatzeko.

2012an 109.171,41 euroko laguntza eman du, kontuan hartuz Euskara zerbitzu gehiago sortu direla, dirulaguntza, 10 urtean % 85 jaitسي da. Euskal komunikabideena %100 jaitسي da, aurten ez baitute xentimorik eman.

KULTURA

Folk Ametsetan antolatzeko dirulaguntza desagertu egin da, Baztango udalak 4.000 euro inguru hartzen zituen hortik. Arte eta Kulturatik bertze 6.000 euro inguru hartzen zituen eta joan den urtekoa orain kobratu dugu.

INGURUGIROA ETA NEKAZARITZA

Azienda lehiaketen dirulaguntzak %100 desagertu dira eta aurtengo nekazaritza azpiegituretako dirulaguntzaren deialdia ez da atera. Dirulaguntza hauek pistak konpondu, bazkalekuak mantendu, iskindegia egin, hiltegia eta horrelako gauzetako erabiltzen dira. Joan den urtean Baztango Udalak 300.000 euroko gastua egin zuen arlo honetan eta horren %50 Nafarroako Gobernuari dagokio.

Lau urteko planari dagokionez, erran behar dugu hainbat bilera eta salaketa egin ondoren lortu dugula Nafarroako Gobernuak Irurritako uren goi-hornidurako proiekturako dirulaguntza bideratzea, 250.000 euro inguru. Baztango udalak, lan hori egiteko urte hasieratik berari dagokion diruaren zatia prest duela aipatu beharra dago. Hala ere, Nafarroako Gobernuak bideendako azkenengo momentuan eman duen arren, Amaiurko ur depositoa-rendako dirua ez du eman. Baztango Udalak bere aldetik dagokiona eginen du hau egin ahal izateko.

ZONALDEKO ENTITATEAK

Bertzalde, zonaldean diren entitateekin mantendutako koordinazioetan 2012an jasandako murrizketek entitate bakoitzarengan izandako eraginak jaso ditugu jendarteari entitate hauen egoeraren berri zabaltzeko eta murrizketek arlo desberdinetan (osasunean, hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan...) duten eraginen kontzientzia zabaltzeko:

TASUBIN S.A. Elizondotik aipatzen dute kobratzea tokatzen zaien dirulaguntzak atzerapen handiarekin iristen ari direla, sei hilabeteko atzerapenera iritsiz eta urterokoak diren dirulaguntzak martxoan kobratzetik ekainean kobratzera pasa direla.

EGUZKILOREK egoera berdina jasaten duela adierazten du, nahiz eta ez da atzendu behar bolondres gisa lan egiten duen emakume talde batek osaturiko elkarte dela.

COCEMFEn kasuan ordea langilego kontratatua asko jaitسي behar izan



Folk Ametsetan 2011



Azienda feria



Tasubinsako langileak

dutela zehazten dute, 4 langiletik langile bakarrera pasaz, eta beraz tokian tokiko atentzio intentsitatea murriztu behar izan dute. Erraten zutenez zonaldera udaberri ondotik ez dira etorri.

XAULIetik etorkizuna beltz ikusten dutela aipatzen dute, dirulaguntza askoren deialdiak oraindik publikatu gabeak daudelako eta publikatuen artean bai entitate publiko zein pribatukoak izan, banatzeko zegoen diru kopurua asko murriztu dute eta baldintzak gogortzearekin kanpo geratzen ari dira; beraz, beraiek jasotzen dutena ere nabarmenki murriztu da eta urteko aurrekontu minimora iristeko zailtasun larriak izango dituzte.


BIDELAGUNetik zenbaki zehatzak aipatu gabe, bolondreserako dirulaguntzak aunitz murriztu zaizkiela airtortzen dute eta deialdien baldintzak ere zorroztu eta zaildu egin direla aipatzen dute. Ordainketen atzerapena ere sumatzen dute eta entitate honetan ere 5-6 hilabeteko atzerapena dago zenbait kibraketerako.



Xauli taldekoak Elbeten pasaletan

ANASAPS-DIZDIRAn Nafar Gobernuko dirulaguntza %30 murriztu zaie. Elkarteen sustapenerako dirulaguntza izan da Dizdira delegazioan gehien eragin duen dirulaguntza, hortaz alokairua ezin ordainduta Doneztebeko Udalarekin akordio bat sinatu berri dute eta bulegoan egiten den arreta zuzena lanaldi erditik laudenera pasa behar izan dute. Honek arreta denbora gutxitu du eta beraz zerbitzuaren kalitatean eragina duela ere adierazten dute.

AFINAtik azpimarratzen dute diru kopuru gutxiagorekin izan bada ere beraien eskaintza mantentzea lortu dutela eta bazkideen kuota igo gabe izan dela. Beraieganatik jasotako informazio xeheatik ondoriozta daiteke, deialdiek ez dituztela epeak errespetatu eta balorazioa asko atzeratzean entitatearengan ezjakintasun egoerak sortu direla, ez baitute aurreikuspenik egiteko aukera askorik izan.



Anasaps lehiaketaren postal irabazlea



BAZTANGO OSASUN KONTSEILUA 90. HAMARKADATIK LEHEN ALDIZ BILDU DA

Baztango osasun kontseilua 90. hamarkadaren hasieratik lehen aldiz urriaren 18an bildu zen. Osasun kontseilua herritarren eskubidea den osasun arreta bermatzeko, hobetzeko eta eraginkorrago egiteko bilgunea da eta, bertan, erakundeetako ordezkariak, osasuneko profesionalak, sindikatu eta herri erakundeetako ordezkariak biltzen dira. Udal berria osatuz gero, udal gobernuaren helburuetako bat Baztan-Zugarramurdi eta Urdazubiko osasun kontseilua berreskuratzea izan da eta, azkenean, lortu da. Aipatzekoa da, halaber, Elizondoko osasun etxeko arduradunen eskaera ere izan dela aipatutako bilgunea berreskuratzea eta, modu horretan, eragile desberdinek aho batez egindako eskariari erantzuna eman zaio.

segitzen du >>

>>

Bileran osasun kontseiluaren funtzionamenduaren inguruan solastu zen, zein funtzionamendu izanen duen eta bertan landuko diren gaiak. Osasun Kontseiluaren ohiko bilkurak 4 hilabetearen behin izanen dira eta lehen bilera izanik, bakoitzak lantzeko dituen gaiak aurkeztu ahal izateko abenduaren 12ko bertze bilera bat egitea erabaki zen. Bertzalde Osasun kontseiluan herriko elkarte edo eragile gehiagok parte hartu nahi badute hauen partehartzea onartzea erabaki zen.

Akitzeko Osasun Etxeko ordezkariak zonaldeko larrialdietako zerbitzua nola geldituko den galdetu zuen. Nafarroako Gobernuaren erantzuna izan zen azkenengo planteamendua Oronoz-Mugairiko puntua presentzialetik lokalizatura pasatzea zela. Baztango Udaletik jakinarazi zitzaion arduragabekeria zela, erabaki honek osasun zerbitzuen erantzuna motelduko baitu.



Elizondoko Osasun Zentrua



Oronozko Osasun Zentrua

Orain gutti Nafarroako parlamentuan alderdi guztiek aho batez Oronoz-Mugairiko larrialdietako arreta zerbitzua mantentzeko erabakia hartu bazuten ere, azkenean, Nafarroako gobernuak arreta-gune presentziala kendu eta lokalizatuan bihurtu nahi du. Baztandarrek dakiten moduan Oronoz-Mugairiko zerbitzutik Elizondoren hegoaldera dauden Baztango herritarrei zerbitzua ematen zaie, hau da, Lekaroz eta Arraiozko egiten duen Orabi-deako baserriei, Iruritaiko errekaioei Artesiagaraino, Baztango Basaburua guttiari Almandozko bigarren tunela artio, Irurita, Gartzain, Arraioz... Modu horretan zonaldea larrialdietako puntu bat guttiagorekin utzita herritarrei osasunerako oinarrizko eskubidea galarazten zaie baina gainera, osasun langileen lan-baldintzak makurtzen dira. Erabaki hau inguruko herritarrak, erakundeak eta osasun arloko profesionalen iritzia kontuan izan gabe hartu da; horrela Baztango udalak eragile desberdinekin izandako solasaldietan ikusi izan duena da, Oronozko larrialdietako zerbitzu presentziala ber-



Murrizketen kontrako manifestazioa

matzea beharrezkoa dela, Oronoz-Mugairiko suhiltzaileen anbulantzia 24 orduz aktibatua kontzea eta medikalizatu izatea bertze eskari bat dela; bertzalde herritarrek beren eguneroko mediku eta erizainak mantentzea eskatzen dute eta, aldi berean, osasuneko profesionalak lan baldintzak bermatzea. Modu berean herritarrek osasun zerbitzu guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea aldarrikatu dute. Gainerakoan ginekologia zerbitzua arrunt eskasa dela ikusi ahal izan da, astean hiru egunetan bertzerik ez baita ematen eta eskualde osorako Beratik hasi eta Zugarramurdi artio Emakumeen zentro bakarra dagoela. Baztango udaletxea herritarren eskubidea den osasun sistema publiko eta unibertsal baten eskubidea bermatzeko gelditu gabe lanean ari da eragile desberdinekin egonez eta Nafarroako Gobernuarekin eta parlamentuko batzordeekin lana eginez. Aldi berean, mobilizazioak deituko ditu Nafarroako Gobernuak proposatzen duen moldaketan aurka eta Oronoz-Mugairiko larrialdiko puntua presentzial moduan mantentzeko.

BAZTANGO UDALAK LOIZU HILTEGIAREN HEIA BERRITZEKO LANAK EGIN DITU

Loizu udal hiltegia arautegirat moldatzeko Baztango udalak 36.000 euroko aurrekontua duen heia berritzea egin du. Orain artioko heia paretan bidez banatua zegoen, hala, aitzinekoa urratu eta, ondotik, burdinezko kortxelen bidez banatu da. Modu berean, azienden atakak irekitzeko sistema aldatu eta langileendako pasarelak paratu dira. Berritutako heiak animalien ongizateko sailaren eta lan-arriskuen prebentzio arautegiaren baldintzak betetzen ditu eta, arautegia betetzea, hiltegia irekirik mantentzeko derrigorrezkoa da.

Betiere heia berritzeko lanak buruilaren 6an hasi ziren eta buruilaren 10etik 15a bizartean egin beharreko lanengatik hetsia zen.

Berritze lanetako obrak Baztango Arakan enpresak egin zituen eta barneko azpiegitura eta hornigaiaren ezarpena berriz Etxe-Holtzek, nekazal-aroztegiaren espezializatutako enpresak. Obren egitea esleitu edo adjudikatzeko Baztango udala Baztanen zergak ordaintzen dituzten enpresa guztiengana zuzendu zen; proposamenak egin zituzten guztien artean Arakanek eskaintzarik hoberena egin zuenez udalak enpresa horri eman zizkion lanak, 13.963,12 euroren truke (BEZa aparte). Bertzalde, hiltegiaren azpiegituretan duten esperientziarengatik, arautegirat moldatutako burdinezko kortxelen egitea Etxe-Holtzi eman zitzaion; kasu honetan aurrekontua 14.960 eurokoa zen (BEZik gabe). Akitzeko, obren zuzendaritza Aierdi ingeniariaren eskuetan egon da, udalak hiltegiaren gaietarako duen aholkularitzaren eskuetan hain zuzen.

LIZARTZUKO BAZKALEKUAREN ISKINDEGIA

Nekazaritza laguntzeko udalak duen konpromisoari jarraiki, Baztango udalak Lizartzuko bazkaleku komunaleko iskindegi edo hesidura guztia berrituko du, orain artiokoa guztiz deseginik eta urratuik baitago. Lan honek 154.000 euroko kostua izanen du (BEZ barne). Kopuru horretatik Baztango udalak 94.000 euro ordainduko ditu eta gainerako 60.000 euroak Cederna-Garalurren laguntzari esker ordainduko dira. Aipagarria eta salagarria da Nafarroako Gobernuaren murrizketa politika aldrebesaren ondorioz, lan hauek ez dutela gobernuaren diru laguntzarik izanen, nahiz eta gobernuaren urteko nekazal azpiegituretako plantzaren barnean onartua zegoen. Aipatu bidenabar lan

hauen aurrekontua Nafarroako Gobernuko teknikariek in ezarri dela ohikoak diren prozedurak erabiliz.

Modu berean kontuan hartu behar da iskindegiaren egoera txarraren ondorioz aurten baserriar guttiagok egin dutela bertan aziendak kontzeko eskaera - hamabortzek- eta, horrela, iaz baino buru guttiago izan dira; 2012an denera 29 behi eta miga, 104 behor eta pottoka eta 220 ardi sartu dituzte. Iskindegia berrituta baserrietako produkzioak atxekitzeko eta iraunarazteko behar-beharrezkoak diren bazkaleku komunalen eskaintza hobetuko dugu eta horrela baserriarrek gure ekonomiaren, gizartearen, ingurunearen eta kulturaren iraupenean duten garrantzia segurtatuko.



Nafarroako Gobernuak, Europako 2008/98/ec zuzentarauari jarraikiz, hiri hondakinen plan integrala onartu zuen lehengo urtean eta horren arabera, 2020 urterako hondakin organiko-en %50 birziklatu behar dira; organiko inpropioak kopuru horren %10 baino guttiago izan behar dute. Etxeetan produzitzen den zaborraren %40 organikoa izaten da eta, gaur egun, edukiontzi berderat botatzen da, gainerako zaborrekin nahasita Gongorako zabortegian botatzeko. Orain artio, zabortegirat botatako tona bakoitzeko 43 euro ordaintzen zen, 2011 an adibidez, 188.777,75 euro ordaindu ziren eta hemendik aitzinerat, prezioa biderkatzea aurrikusten da, horrek, bistan denez, hondakinen bilketa aunitz kario-tuko du. Bertzade, ikuspegi sozial batetik ez da ulertzen ahal, hondakinak guttitzeko eta bereizirik biltzeko sistema ahalik eta hoberena ez paratzea. Horrela, Nafarroako Gobernuaren planaren eskakizunak gogoan harturik eta etxeetan produzitzen den zabor orga-



Elizondon dauden zaborrontziak

niko pila, orain artioko hondakinen bilketa sistema aldatzea nahitaezkoa izanen da. Horretarako, eskualdeko hondakinen mankomunitatean gogoeta prozesua hasi da eta, Baztango zaborren udal batzorde irekian ere horri buruz solasean ari gara. Momentuko erronka, organikoen bilketa berezitan indarra egitea izanen da eta horretarako bi modu izanen dira. Alde batetik, partikularrek etxeetan konpostagailuen bidez eginen dutena, eta bertzea, norberak bere etxeko hondakin organikoak bereiztea eta ondotik bilketa sistemak finkatutako egunetan modu horre-

tan jasotzea. Bilketa berezitua egiteak, biltzeko tenorean inbertsio handiagoa egitea suposatzen du, langile gehiago behar baitira, horrela, zabortegirat botatzeagatik gero eta gehiago ordaindu beharrean, diru hori bilketa sistema hobetzeko eta langile gehiago kontratatzeko erabiliko da. Krisi garai hauetan eraginkortasun ekonomiko eta sozial handiagoa eskainiko du modu honek.

Organikoaren bilketa berezia, bilketa-sistema berritzearen bidean lehen pausua bertzerik ez da. Eskualde mailan, Nafarroako Gobernuaren eta Europako zuzentzarauen eskakizunei jarraikiz bilketa berezirik egiteko modu eraginkorra modu mailakatuan jarriko dugu; eskualde mailako prozesua izanen da, era koordinatuan eta planifikatuan eginen dena. Azken pausua, hemendik urte batzuetarat hondakinen bilketa guztia berezirik egitea litzateke, horretarako, lehenik norberak etxean hondakin guztiak berezita.

Baztango udalak 168 konpostgailu banatu ditu

Etxeetako hondakin organikoak etxeetan tratatu eta konpost bihurtzeko, Baztango udaletxeak eta eskualdeko zaborren mankomunitateak 168 konpostgailu banatu dituzte Baztanen. Konpostgailuak banatu eta bat, solasaldiak egin dira, konposta nola egin azaltzeko. Denerat kuartelka Arizkun, Iruritan eta Elizondon egin diren mintzaldietan 100 herritar inguruk parte hartu dute. Modu berean, konpostgailuak izanen dituzten herritarrek teknikariaren bisita izanen dute urtero konposta egiten laguntzeko. Aipagarria da momentu honetan Baztango udalean 150 konpostgailu eskaera gehiago daudela eta orain Nafarroako Hondakinen Partzuergoak eskaera horiek kudeatu beharko ditu.



HIRI HONDAKINEN BILKETA TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATU DU UDALAK

Baztango udalak hiri-hondakinen bilketa tasen berrikusketan egin du eta, horrela, 2009. urtean tratamendu tasaren gorakadak eragindako arrangurak kontuan hartuta ordenantza gaurkotasuna da.



Arriaoren dauden zaborrontziak

Gaurkotze errebisioa, Baztango hondakinen batzordean garatu da. Batzorde horretan, talde politiko ezberdinetako hautetsiak egoteaz gain, herritarrak daude, bai modu pertsonalean nola elkarte edo herrietako ordezkari gisa. Bilera aunitz izan ondotik, eta gaiak duen konplexutasuna argi izanik, ordenantza eredu berri bat diseinatu da Udalbatzak onartu dezan.

Gaur egun indarrean dagoen ordenantzarekin alderatuz, hauek dira aldatetarik azpimarragarrienak:

- Baztango herri guzietan, etxeko zaborra berdin kobratuko da. Oraingo ordenantzan, Elizondo eta Irurritako etxebizitzetara gainerako etxebizitzetara baino gehiago kobratzen zaie.

- Zergaren sortzapena seihilabetero egiten da. Zaborren erreboaren zenbatekoaren gorakada dela eta, gehien bat partzuergoko tasaren eraginez, urtean behin kobratu ordez, bi aldiz egitea proposatu da, familietako ekonomian kalte gutxiago eragiteko asmoz.
- Gaur egun baztandar guzietara zaborrontziak erabiltzen dituztela kontuan hartuz, errebisio batekin da Baztango etxebizitza eta iharduera guzietara, herrietatik kanpo daudenak barne, dagokien diru saria ordaindu dezaten.
- Etxebizitza edo iharduerak zaborrontzitik 500 metro baino urrunago daudelarik, ordain sariari hoberia aplikatuko zaio. Hori horrela, distantzia 500 eta 1.500 metro artekoa bada, %30eko hoberia edo bonifikazioa ezarriko da. Zaborrontzia 1.500 metro baino urrunago bada, ezarritako hoberia %50ekoa izanen da.
- Merkataritza tarifa aldatzen da eta lau ataleko sailkapena ezartzen da, dauden egoera desberdinak bildu ahal izateko. Aipatzekoa da, merkataritza zentru handientzat tarifa berezia ezartzen dela. Ordain saria, supermerkatuek dutenaren bikoitza da. Bestalde, aipatu behar

da, orain arte ez bezala, kontuan hartuko dela iharduera gaurkotzen den egoitzak zenbateko azalera duen. Hau da, tamainak ere zerikusia izanen du ordaindu beharreko sarian.

- Indarrean dagoen ordenantza ez du biltzen industrial tarifarik. Iharduera profesional, merkataritza eta ostalaritza aipatzen dira ordenantzan, baino ez dago deus industriaren inguruan. Ordenantza berri honetan, atal espres bat ezartzen da industrial ordain sarientzako, langile kopurua kontuan hartuko delarik ordaindu beharrekoa ezartzeko.
- Ostalaritza atalean, landetxeak, kanpinak eta aterpetxeak sartzen dira sailkapen honetan. Bertalde, zegoen sailkapena zabalitzen da, ahal bezain xuxenak izateko asmoz. Sailkapena egiterakoan, egoitzen azalera, jatetxeetan mahai kopurua, hoteletan logela kopurua eta aforoa kontuan hartu dira. Aipatzekoa da ordain sari berezi bat ezarri dela zabor kopuru handia sortzen dutenentzako. Hauen artean, 50 lagun baino gehiagorentzat tokia duten aterpetxe eta kanpinak daude eta baita ere, 100 lagun baino gehiagorentzat tokia duten jatetxeak.

Baztan

Udal Boletina

- Osasungintza eta hezkuntzaren inguruko iharduerentzako ere sail berezi bat sortu da.

Ordenantza aldatzerakoan, alderdi ekonomikoari lehentasuna eman zaio, hau da, ordenantza berritzeak ez du inolaz ere suposatuko orain arte kontzeptu berdinagatik jasotzen zena gutxitzea.

Bailarako etxebizitzendako tarifa bakarra eta berdina jartzeak, urteko diru-bilketan igoera txiki bat suposatuko du (%1 ekoa gutxi gora behera). Hoberiak ezartzeak suposatuko duen jaitziera, konpentsatuko da gaur egun kobratzen ez zaien baserri edota herri-gunetatik kanpo dauden iharduera enpresei kobratuko zaienarekin.

Hori horrela, etxebizitzei ez dagoen zabor bilketarengatik jasoko dena, orain artekoa baino gehiago izanen da, gehien bat, zabor kopuru handia sortzen duten ihardueren diru sariak gaur egun, proposatzen direnak baino dexente merkeagoak baitira.

Udalaren webgunean tasa berrien taula begiratu daiteke.

www.baztangoudala.eu

IRURITAKO SAGUES FUNDAZIOAREN ETXEBIZITZAK



Iruritako Apote auzoan Sagues fundazioaren jabeagoko solairu bakarreko sei bizitza daude bakoitza bere baratzarekin. Bizitza horiek herriko seme batek udalari eta herritarrei egindako ekarpena izan zen, ezinean ziren familiak laguntzeko; horretarako aipatu fundazioa sorrarazi zuen eta bertako patronatuko kide Baztango alkatea, Iruritako alkatea, udalean egon daikkeen zinegotzi iruritarra –dagoelarik- eta herriko apaiza egin zituen. Azkeneko urteetan etxebizitza horien funtzio sozia-

la guztiz desitxuratu da horregatik, orain, horien erabilera zehaztu eta egiazki beharrezan diren jendeak laguntzeko irizpideak jarri dira. Modu horretan Iruritako herriak eskatuta estatutuak berrikusi dira eta, horren ondorioz, premia egoera Nafarroako Gobernuaren irizpideen arabera zehaztu da, gainera, Baztango zerbitzu sozialetako teknika-riaren txostena beharko da. Horretaz gain, Fundazioko sorrerako irizpideei jarraiki, iruritarrek lehentasuna izanen dute eta ondotik, gainerako baztandarrak.

Bertzalde etxe horietako bat premia kasu puntaletarako hutsik kontuko du udalak, hau da, bazterketa sozial kasu larrietarako, indarkeria matxista kasuetarako edo horrelako ustekabeko kasuetarako. Betiere etxe guztietako egoiliarrek fundazioko estatutuetan heldu

den gisan, baina orain artio egin ez den moduan, hilabetero, bizitzen mantentzeko zerbaite ordaindu beharko dute, 100 euro hain zuzen eta urtariletik aitzinerat hasiko da kobraketa hori egiten.

Gainerakoan aipatzekoa da urteetako utzikeriaren ondorioz etxe batzuk arras egoera txarrean daudela, kasu horretan bereziki etxe bat dago, hala finantza baliabideak eskuratu ahala etxe horiek konpondu eta beren funtzio soziala betetzeko gaituko dira.

Horrela gauzak, aldaketak Iruritako herriarekin adostuta eta etxe hauen funtzio soziala gogoan hartuta, orain artio etxe hauen erabiltzaile zireneta-ko batzuk bizitzak utzi beharko dituzte beren partez egiazko behar soziala dutenak erabili ahal izan dezaten.

EIOZaren, JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ETA LUR OKUPAZIO TASEN BERRAZTERKETA

11

2013ko urtarrila

Azkeneko urte hauetan herritar batzuk tasak eta kontribuzioak zuzen ordaintzen zituzten biztartean, bertze batzuk, administrazio publikoaren utzikeriaren ondorioz ordaindu beharrekoari iskin egin diote. Egoera hau, baztandar guztiek ezagutzen duten moduan, Jarduera Ekonominoen gaineko Zerga (IAE erdaraz), enpresa elektrikoaren okupazio tasen ordainketan eta EIOZen (ICIO erdaraz) orokorra izan da; horregatik Baztango udalak guttienezko etika bati jarraikiz, agrarioak saihesteko eta administrazio publikoaren aitzinean herritar guztiek duten eskubide eta betebeharren berdintasuna bermatzeko aipatu tasak berraztertzeke erabakia hartu du. Horrela, alde batetik, aktibitateen Jarduera Ekonominoen gaineko Zergaren ordainketa aztertuko du. Bertze aldetik, enpresa elektrikoek -Iberdrolak- eta telefono konpainiek -Telefonikak adibidez- beren azpiegiturengatik ordaintzen duten okupazio tasak ere aztertuko ditu. Azkenik, azkeneko urteetan egin diren etxeetan ere, herritar guztien ezagutzeko denez, EIOZaren ordainketan iruzurrak gertatu dira eta hori atzemateko ere, egin diren kontuen azterketa eginen da.

Baztanen orain eginen diren azterketa hauek Nafarroako toki desberdinetan egiten ari dira: Iruñea, Altsasu, Tafalla, Urdazubi, Bera, Lesaka, Berriozar, Egues, Peralta, Erriberri... Guztira 36 udal baino gehiagotan, hortaz, Baztangoa ez da inongo salbuespena.

Bertzalde, azterketa hauek egiteko udalak lehiaketa bidez TRACASA enpresa publikoa kontratatu du, momentu honetan udalak ez duelako baliabiderik halako lanik egiteko. Halaber, lan hauetan egiten den moduan, azkeneko lau urteetan egin diren etxeak aztertuko dira, hori baita legeak paratzen duen denboran gibelerat egiteko muga.

Azterketa guzti hauek errutinazkoak izanen dira, hau da, norbaiti azterketa tokatzen bazaio horrek ez du erran nahi bere gaineko susmorik dagoenik, ekimen orokor honen baitan tokatu zaio la bertzerik ez. Kasu batzuetan, bistan denez, bere garaian ordaindu ez zutelako ordaintzea tokatuko zaie eta bertze batzuetan, akaso, kobratzea. Udalak argi utzi nahi du hau ez dela penalizatzeko helburuarekin egiten, eta ordaintzea tokatzen zaionak dagokiona bertzerik ez du ordainduko, hau da, bere garaian ordaindu ez zuena.

Horrela gauzak, bizi izandako udal utzikeria eta herritarren azpijokoak zuzentzeko eta hemendik aitzinerat garbi jokatzeko udalak tasa hauen kontrolerako bideak jarriko ditu.



Baztan

Udal Boletina

ESPAINIAKO BANDERA BAZTANGO UDALETXEAN JARTZEKO AGINDUA

Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak Espainiako bandera Baztango udaletxean paratzeko agindua eman du, horretarako aitzaki gisa, Espainiako sinboloen legea hartuz. Baztango udaletxean urtean barna ez da bandera bat ere izaten, Baztandarrren Biltzarra egunean eta Elizondoko bestetako Santio egunean soilik jarri izan dira eta, jarri direlarik, Baztango sentipen nagusiari jarraikiz Baztangoa, Nafarroakoa eta Ikurriña paratu dira. Espainiako gobernuaren ordezkariak, haatik, urteko egun guztietan Espainiako bandera Baztango udaletxearen balkoian inposatu nahi du. Horrela gauzak, ordezkariaren jakinarazpenari, espainiako bandera jartzeko agindua emanez gero Espainiako bandera bat igortzeko erantzun zitzaion; alta, gobernu ordezkariak hori ez zela bere ardura erran eta horretarako diru-sailik edo partidarik ez zuela erantsi zuen. Bistan denez Baztango udaletxeak ere erantzun bera eman zuen, hau da, Espainiako bandera erosteko ez zuela diru-sailik. Nolanahi ere, ordezkariak

administrazioarekiko auzi epaitegian salaketa paratu eta horren berri jakin ondotik, Baztango udalak bertan inposizio honen aitzinean bere burua defendatzeko erabakia hartu du, denera 2.000-3.000 euro artean kosta daitekeena. Aldi berean, Nafarroako Gobernuko Toki administrazioko departamentuak foru agindu bidez Nafarroako bandera urteko egun guztietan udaleko balkoian paratzeko eskatu du, kasu honetan, nahiz eta erabakiak zentzurik ez duela pentsatu, betetzeko erabakia hartu da. Betiere, Nafarroako ikurren legeak balkoian Ikurriña jartzea galerazten du, Euskal Autonomi Erkidegoko agintariren baten bisitari ongietorria emateko ez bada. Honen guztiaren ondorioz, baztandarrek, Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren ordezkariaren inposizioz Baztango udaletxean Espainiako bandera urteko egun guztietan ikusi beharko dute. Krisi eta murrizketa aldi honetan batzuen obsesio eta kezka bakarra beren banderak inposatzea bertzerik ez da.

Krisiaren ondorioz edo dena delakoarengatik estualdian egonez gero etorri udaletxeko zerbitzu sozialetarat zure eskubideetaz informatzera.
Deitu **948 580 006** telefonorot.



GILTXAURDI KIROL INSTALAZIOETAKO BEZa

Baztango Udalak Giltxaurdi kirol instalazioak kudeatzeko Giltxaurdi S.L. enpresa publikoa sortu ondotik, aurten tarifak ez igotzea erabaki du, hori dela eta, aitzineko urteko tarifak ez zaie Kontsumoko Prezioen Indizearen gorakada ezarri; alta, Espainiako Estatuak BEZa igan eta gero, igoera hori tarifetan derrigorrez nabaritu da; hala, orain artio kirol instalakuntzetako zerbitzuengatik %10eko BEZa ordaintzen baldin bazen, orain, PPren erabakiaren ondotik %21a ordaintzen da. Horrela erabiltzaileek BEZaren igoera abonu aukera eta ekintza desberdinetan nabaritu dute. Dударik gabe familia bakoitzeko abonuen eta ekintzen aukeraketa eta pilaketak, guztira, dexenteko igoera ekar dezake. Baina erabiltzaileek ulertuko dutenez, udalak ez du BEZaren igoera beregain hartzen ahal, udalaren konpromisoa KPI ez igatea izan da, aurten %2,60koa. Bertalalde, aurten, berrikuntza modura eta ordainketa errazteko, abonuen bi alditan zati-turik ordaintzen ahal dira.

ORDEN DE COLOCACIÓN DE LA BANDERA DE ESPAÑA EN EL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN

La Delegación del Gobierno de España en Navarra ha dado orden de colocar la bandera de España en el Ayuntamiento de Baztan, utilizando para ello como pretexto la Ley de Símbolos de Navarra, y cuando se han colocado se han puesto las banderas de Baztan, de Navarra y la ikurriña, respondiendo al sentir mayoritario de la ciudadanía baztandarra. La Delegación del Gobierno de España, sin embargo, pretende imponer la bandera de España todos los días del año. Ante esta situación, a la comunicación de la Delegación se le respondió diciendo que si daba la orden de colocar la bandera de España que enviara una bandera de España, pero la Delegación del Gobierno comunicó que eso no era de su responsabilidad añadiendo que no disponía de una partida para ello. Como es evidente el Ayuntamiento de Baztan respondió del mismo modo, es decir, que no disponía de una partida para comprar la bandera de España. De cualquier modo, la Delegación interpuso una denuncia en el Juzgado de lo Contencioso administrativo y, tras tener conocimiento de ello, el Ayuntamiento de Baztan ha decidido defenderse ante ese tiempo, el Departamento de Administración Local mediante una orden foral ha pedido que se coloque la bandera de Navarra en el balcón del Ayuntamiento, y a pesar de pensar que tal decisión carece de sentido, se ha acordado cumplirlo. Con todo, la Ley de Símbolos de Navarra prohíbe la colocación de la ikurriña en el balcón, si no es para dar la bienvenida a la visita de alguna autoridad de la Comunidad Autónoma Vasca. Como consecuencia de todo ello, los baztandarras tendrán que ver la bandera de España colocada diariamente en el Ayuntamiento de Baztan, por imposición del Gobierno de Navarra y del Gobierno de España. En estos tiempos de crisis y recortes, la obesión y la única preocupación de algunos es imponer sus banderas.

Las personas con dificultades a consecuencia de la crisis económica o por cualquier otro motivo, pueden acudir a los servicios sociales del Ayuntamiento para informarse de sus derechos. Hay que llamar al teléfono **948 580 006**

El Ayuntamiento de Baztan tras constituir la empresa pública Giltxaurdi S.L. para el mantenimiento de las instalaciones deportivas Giltxaurdi, ha decidido no subir este año las tarifas, por ello, a las tarifas de este año no se les ha aplicado la subida del Índice de Precios al Consumo, pero, como el Estado Español ha subido el IVA, dicha subida repercutirá forzadamente en las tartas, así, si hasta ahora, por los servicios de las instalaciones deportivas se abonaba un 10% de IVA, ahora, tras la decisión del PP, se paga un 21%. Por consiguiente, las personas usuarias notarán la subida en las distintas modalidades de abono y en las diversas actividades. Sin lugar a duda, los abonos de cada familia junto con las actividades pueden suponer una considerable subida. Pero como comprenderán las personas usuarias, el Ayuntamiento no puede asumir la subida del IVA; el compromiso del Ayuntamiento ha sido no aplicar el IPC; este año un 2,60%. Por otro lado, este año, como novedad y para facilitar el pago, los abonos se pueden pagar en dos plazos.

IVA DE LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS GILTXAURDI



INSPECCIÓN DEL ICIO, DEL IMPUESTO DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS Y DE LAS TASAS DE OCUPACIÓN DE SUELO

